AR-EG1/05-15
AR-G61/05-15



Jarduteko baldintzak:

— Banaketa Eremu finkatuta dago eta, beraz, ez da betearazpen unitaterik mugatu.

— Zabalbide kaleko 21eko irakaskuntzako ekipamenduaren xehekapen azterlanean, gehienez eraiki daitekeen azalera 31.812 $m^2$-tan ezarriko da.

— Iturribide kaleko 116. eta 117. zenbakiek osatzen duten bizitegirako partzelek eraikuntzako gehieneko lerrokadurek mugatzen duten eremuaren azaleraren %35 izango dute partzela-patiotarako.

*Oharrak*

*Oharra:* Testu hau argitaratu eta hamabost (15) egun baliodun igarotzen direnean sartuko da indarrean eta udalaren webgunean egongo da ikusgai: www.bilbao.net/Area de Urbanismo.

Bilbon, 2014ko abenduaren 17an.—Udalbatzarreko idazkari nagusia, Jon Zabala Basterra

(II-8239)

•

## Bermeoko Udala

**Ostalaritzako terraza eta mahaiak jartzeko ordenantza.**

Bermeoko Udalak 2014ko irailaren 4an izandako Osoko Bilkuran ostalaritzako terraza eta mahaiak jartzeko ordenantzea hasieraz onartu eban; 2014ko azaroak 11ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta jagokon epea igarota, alegaziorik aurkeztu ez danez, behin betiko onartuta gelditzen da, ondoren adierazoten dan moduan:

### OSTALARITZAREN TERRAZA ETA MAHAIAK INSTALATZEKO UDAL ORDENANTZA

I. ATALBURUA

**1. artikulua.—*Xedea***

1. Ordenantza honen xedea bide publikoan jartzen diran terraza eta instalazio osagarrien, hau da, itzalkin, alboko babesak, loreaskak, eta abarren araudi tekniko eta juridikoa ezartzea da.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen danaren efektuetarako, terraza bezala ulertu behar diranak hurrengo hauek dira: taberna, jatetxe, kafetegi, eta antzeko legezko ostalaritza jarduerentzat alde baterako osagarri bezala jartzen diran mahai, aulki eta instalazio mugikorren multzoa. Elementu hauek guztiak jartzeko baimena jarduera-lizentziaren titularrak diran pertsona fisikoei emongo jake.

3. Debekatuta dago 1. paragrafoan aipatzen diran elementuetatik aparte beste batzuk jartzea; adibidez: hozkailuak, armairuak, eta abar.

4. Salbuespenezko kasuetan, lurrera finkatu beharreko beste instalazio mota batzuk baimendu ahal izango dira, eraikin mota eta honen kokapena kontuan hartuko diralarik.

**2. artikulua.—*Eremua***

Ordenantza hau hirigunean erabilera publikokoak diran eremu guztietan (bide publikoak, eremu-libreak, gune-berdeak, etab.) izango da aplikagarria, axolagabea izanik euren titulartasun publikoa edo pribatua izatea. Erabileraren publikotasuna, egitezko egoerak, edota indarrean dagoan plangintzak zehaztuko dau.

Ordenantza honen ondorioetarako, herriaren barne lau gune ezbardin zehazten dira:

— Gunea: Portu Zaharra, Gaztelu, Bastarre eta Arana tar Sabinen enparantza.

— Gunea: Lamera.

— Gunea: Alde Zaharraren gainerakoa.

— Gunea: Herriaren gainerakoa.

Condiciones de actuación:

— Esta Área de Reparto se encuentra consolidada, por lo que no se delimita ninguna Unidad de Ejecución.

— El Estudio de Detalle del equipamiento docente situado en el número 21 de la calle Zabalbide respetará un techo edificable de 31.812 $m^2$.

— Las parcelas residenciales constituidas por los números 116 y 118 de la calle Iturribide dispondrán de una superficie destinada a patios de parcela del 35% del área delimitada por las alineaciones máximas de edificación.

*Observaciones*

*Advertencia:* este texto entrará en vigor una vez transcurran quince (15) días hábiles desde la fecha de la publicación, y estará disponible en la web municipal: www.bilbao.net/Area de Urbanismo.

En Bilbao, a 17 de diciembre de 2014.—El Secretario General del Pleno, Jon Zabala Basterra

(II-8239)

•

## Ayuntamiento de Bermeo

**Ordenanza reguladora para la instalación de terrazas y mesas en hostelería.**

El Ayuntamiento de Bermeo, en sesión plenaria celebrada el 4 de septiembre de 2014, aprobó inicialmente la ordenanza reguladora para la instalación de terrazas y mesas en hostelería, y no habiéndose presentado alegaciones al respecto en el plazo transcurrido desde su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» del día 11 de noviembre de 2014, se aprueba definitivamente la citada ordenanza, tal como figura seguidamente:

### ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE TERRAZAS EN BERMEO

CAPÍTULO 1

**Artículo 1.—*Objeto***

1. El objeto de la presente Ordenanza es establecer el régimen técnico y jurídico de la instalación sobre la vía pública de terrazas e instalaciones complementarias tales como parasoles, protecciones laterales, jardineras, etc.

2. A los solos efectos de lo señalado en el apartado anterior, se entienden como terrazas el conjunto de mesas, sillas e instalaciones móviles provisionales que sirven de complemento temporal a una actividad legalizada del ramo de hostelería tales como bares, restaurantes, cafeterías similares, siendo otorgada a las personas físicas o jurídicas titulares de la licencia de actividad.

3. Queda prohibida la instalación de elementos distintos de los señalados en el punto 1, tales como refrigeradores, armarios, etc.

4. En casos excepcionales se podrán autorizar otro tipo de instalaciones fijadas al suelo, atendiendo a su localización y tipo de edificación.

**Artículo 2.—*Modelo***

La presente ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía pública, espacios libres, zonas verdes, etc.) del municipio que sean de uso público, sean de titularidad pública o privada. Esta condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.

A los efectos de definir los distintos espacios del municipio, susceptibles de aplicación de la presente ordenanza, según sus características, se establecen las siguientes zonas:

— Puerto, Gaztelu, Bastarre y Arana tar Sabinen Enparantza.

— Lamera.

— Resto del Casco Viejo.

— Resto del municipio.

cve: BAO-BOB-2014a249

II. ATALBURUA

**PLAZA ETA GUNE LIBRE BEREZIETAN INSTALAZIOAK**

**3 . artikulua.—*Plaza eta gune libre bereziak***

Gune hauetan terrazak jartzeko eskaerak kasu zehatz bakoitzaren berezitasunak eta hurrengoan aipatuko diran muga orokorrak kontuan hartuta erabagiko dira:

— Lorategi-guneak, jolas eta aisialdirako dagozan guneak errespetatu beharko dira.

— Oinezkoen ibiliaren jariotasuna ez da eragotziko. Lehenengo artikuluan xedatzen diran lokalen titularrek bakarrik eskatu ahal izango dabe bide publikoa okupatzeko lizentzia.

— Debekatuta dago pasagune bezala seinalatuta dagozan tokietan terrazak instalatzea.

— Erdiko eremu berberan terraza jartzeko eskaera ezberdinak badagoz, establezimendu bakoitzak okupatu beharreko azalera, ondorengo moduan kalkulatuko da: guztientzat dagoan espazioa zati aurkeztutako eskaera kopurua.

— Okupazinoa ezin izango da, inola ere, Udalak baimentzen dauana baino azalera handiagokoa izan.

— Aldamenekoen fatxadak okupatu nahi izanez gero, derrigorrezkoa izango da euren idatzizko baimena izatea.

— Terrazetan mahaiak eta aulkiak bakarrik jarri ahal izango dira, debekatuta egongo dalarik bestelako altzaririk ipintzea; adibidez: makinak, kioskoak, ainguraleku finkodun toldoak, eta abar.

CAPÍTULO II

**INSTALACIONES EN PLAZAS Y ESPACIOS LIBRES SINGULARES**

**Artículo 3.—*Plazas y espacios libres singulares***

Las solicitudes para la instalación de terrazas en estos espacios, se resolverán según las peculiaridades de cada caso concreto y con sujeción las siguientes limitaciones generales:

— Se respetarán las zonas ajardinadas, zonas de juego y descanso existentes. No se impedirá la fluidez del paso de los viandantes.

— Únicamente podrán solicitar licencia de ocupación de la vía pública en estos espacios los titulares de los locales definidos en el artículo 1 cuyos frentes de fachada den a los mismos.

— Queda prohibida su instalación en las zonas señaladas como paso.

— En caso de concurrencia de diversas solicitudes de ocupación sobre un mismo espacio central, la superficie a ocupar por los distintos establecimientos, será el resultado de dividir el espacio por las solicitudes existentes.

— La ocupación no podrá en ningún caso sobrepasar la superficie a ocupar autorizada por el Ayuntamiento.

— Deberá contar con la autorización por escrito de los colindantes cuando pretenda ocupar la fachada de los mismos.

— Solo se referirá a sillas y mesas, estando prohibida la instalación de barras exteriores, maquinas, quioscos, toldos con anclaje fijo, etc.

III. ATALBURUA

**BALDINTZA TEKNIKOAK**

**4. artikulua**

Baimendutako mahai eta aulki kopurua bakarrik jarriko da. Baimendutako establezimendu bakoitzaren mahai kopuruak beragaz ekarriko dau mahai bakoitzean gehienez lau (4) aulki jartzeko baimena. Edozein aldaketa egiteko, eskaera barri bat egin, eta berorren baimena lortu beharko da.

Terrazek, establezimenduaren fatxadaren paraleloan dagoan erabilera publikoko espazioa okupatu ahal izango dabe, establezimendurako sarrera barne. Beste espazio batzuen okupazinoa eskatzeko, auzoko interesatuen idatzizko onespena aurkeztu beharko da. Okupazinoaren sakonera bi eta lau metro bitartekoa izango da, beti ere, gutxienez lau metrotako pasabidea utzita.

Terrazak jartzerakoan, etxebizitzen kolarretara pasoa bermatu beharko da. Gitxienez, irisgarritasunari buruzko arautegiak xedatzen dauan pasoa utzi beharko da.

Terrazak ezin izango dira zarratu, eta terrazen sarrerako pasoa, gitxienez, hiru metrokoa izan beharko da.

**5. artikulua**

Instalazio baimenaren titularra egun osoan okupatutako espazioa behar dan garbitasun eta higiene egoeran mantentzera behartuta egongo da, aldizkako ekorketak eta garbitasun lanak eginez.

Era berean, lanaldia amaitzerakoan altzari guztiak establezimenduaren barruan gorde beharko dira, eta okupatutako espazioa erabat garbituta gelditu beharko da.

Salbuespen kasuetan eta altzariak batzeko ezintasun fisikoa justifikatuz gero, altzariak bide publikoa okupatzeko ordutegitik kanpo pilaratzea onartu ahal izango da, horretarako baimena dala medio. Altzari pilaraketarako, beharrezkoak diran segurtasun eta eusteko sistema egokiak erabili beharko dira; okupatutako gunea eta, baita begi-inpaktua ere, ahalik eta txikienak izan beharko dira. Fatxada ondoko gunea libre utzi beharko da, baimenean zehaztuta egon beharko diran salbuespenezko kasuetan izan ezik.

Itzalkin, mahai, aulki, edo lore-askak jartzeko bide publikoan ainguraketak egitea beharrezkoa danean, derrigorrezkoa izango da jagokon udal baimena eskuratzea. Beti ere, aipatutako elementuak

CAPÍTULO III

**CONDICIONES TÉCNICAS**

**Artículo 4**

Se colocará exclusivamente el número de mesas y sillas autorizado. El número de mesas por establecimiento autorizado conllevará la autorización para la instalación de 4 sillas máximo por mesa. Para cualquier cambio, deberá presentar nueva solicitud y obtener la correspondiente autorización.

Las terrazas y veladores podrán ocupar el espacio de uso público paralelo a la fachada del establecimiento, entendiendo como tal, la que incluye el acceso al mismo. Para solicitar la ocupación de otros espacios deberá presentarse la conformidad de los vecinos interesados. El fondo de ocupación estará entre dos y cuatro metros siempre que se respete un paso mínimo de cuatro metros.

Al poner la terraza se tendrá que garantizar el paso a los portales de los edificios. Se tendrá que dejar como mínimo el paso que regula la normativa relativa a la accesibilidad.

No se permitirá el cierre de las terrazas, y el paso de entrada a la terraza será, como mínimo, de 3 metros.

**Artículo 5**

El titular de la autorización tiene la obligación de mantener, durante todo el día, el espacio ocupado en las debidas condiciones de limpieza e higiene, efectuando tareas de barrido y limpiezas periódicas.

Asimismo, deberá retirar los elementos del mobiliario al término de cada jornada, al interior del establecimiento, debiendo dejar el espacio ocupado en perfectas condiciones de limpieza.

En casos excepcionales y previa justificación de la imposibilidad física de la recogida, se permitirá a través de la correspondiente autorización, a apilar los elementos de mobiliario tras el horario de ocupación en la vía pública, con las debidas medidas de seguridad y sujeción y reduciendo al máximo la zona ocupada así como su impacto visual. Se dejará libre la zona próxima a la fachada, salvo los casos excepcionales que serán, asimismo recogidos en la correspondiente autorización.

En los casos en que para la colocación de sombrillas, mesas, sillas, o jardineras sea preciso realizar anclajes en la vía pública, deberán tener la correspondiente autorización municipal. En todo

cve: BAO-BOB-2014a249

kentzen diranean, hauen ainguraketak ezin izango dira lurzorutik kanpo gelditu. Baimendutako okupazinoa dala eta, bide publikoan edo aldameneko hiri-elementuetan kalterik ikusten bada, Udal administrazinoak kalte guztien ordainketa exijituko dau.

Era berean, ostalaritza jardunketaren titularrak jardunketa hori uzten badau, bide publikoa jatorrizko egoeran utzi beharko dau. Beste ostalaritza jardunketa batek toki bertan jarraituko dauala, eta ainguraketa horiek beharrezkoak dauzala kreditatzen badau, ordea, ez da egongo ainguraketak kentzeko beharrizanik.

1. Koloreak: Tonu neutroak erabili beharko dira (zuriak, kremak, metalizatuak...). Ezin izango dira kolore nabarmenak edota bizi-biziak erabili. Interesaturen batek kolore edo materialen bat araudi honetara moldatzen dan ala ez jakin nahi izanez gero, udal zerbitzu teknikoei gai hori argitzeko eskatu ahal izango deutso, beti ere, baimenaren eskaera egin aurretik.

2. Espresuki debekatzen dira publizitatedun terraza estandarrak, lehen esandako baldintzak eta materialak beteten ez dabenean.

3. Altzariak (mahaiak, aulkiak, itzalkinak, banagailuak, etab...) orokorrean egoera onean mantenitu beharko dira.

4. Itzalkinak: Mahai baterako banakakoak diran itzalkinak ezin izango dira lurzorura ainguratuta egon. Mahai bat baino gehiago estaltzen dabezan itzalkinak jartzeko, berariazko baimena lortu beharko da.

IV. ATALBURUA

## ORDUTEGIAK

### 6. artikulua

Debekatuta dago auzokoen atsedena zarata, garrasi edo beste edozelako eragozpenakaz etetea. Debekatuta dago, kasu guztietan, kanpoko megafonia jartzea.

### 7. artikulua

1. Okupazinoaren ordutegia hurrengoa izango da:

— Instalatzeko: Goizeko bederatziretatik (9:00) aurrera, garbiketa-lanak eragotzi barik.

— Kentzeko: Apirilaren 1etik Urriaren 31rarte:

• Domekatik eguenara: 00:00etan.

• Bariku, zapatu eta jai bezperatan: 1:30etan.

— Gainontzeko denboraldi baimendua:

• Domekatik eguenara: 23:00etan.

• Bariku, zapatua eta jai bezperatan: 00:00etan.

Terrazaren funtzionamendu ordutegia amaitutakoan, elementu guztiak kendu beharko dira bide publikotik eta, horretarako, hogeita hamar (30) minutuko epea egongo da.

Ordutegi berezia:

— Ordutegi arrunta baino ordu bat gehiago.

— Ordutegi berezia egun honeetarako onartzen da: Errege bezperea, Aratuste martitzena, Aratuste zapatua, Arrain Azokako zapatua, Doniene bezperea, Madalen bezperan, Madalen eguna, Roke Deuna eguna, Andra Mari bezperea, Andra Mari eguna, Arrantzale eguna, Sukalki bezperea, Sukalki eguna, Santa Eufemia bezperea, Bermistoriako zapatua, Gabon eguna eta Gabon zahar eguna.

2. Ordutegia hurrengo kasuetan murriztu ahal izango da : terraza enparantza itxi batean instalatzen danean; etxebizitzen barruko solairuen kota enparantzaren sabaitik hurbilegi dagoalako kexak dagozanean, eta edozein beste edozein arrazoigaitik, auzokoak eragozten dirala egiaztatzen danean.

3. Zamalan guneetan, terraza instalatzeko ordutegia ezin izango da hasi zamalanen ordutegia amaitu arte.

caso estos se deberán colocar de tal forma que su retirada no sobresalga de la misma. Para el supuesto de que se observen daños o desperfectos en la vía pública ocupada o en elementos urbanos cercanos producidos por la instalación autorizada, la administración municipal exigirá el importe total de los referidos daños.

De la misma forma, en caso de que el titular de la actividad de hostelería cese en la misma, deberá reponer la vía pública a su estado original, salvo que acredite que en el local se a seguir desarrollando una actividad de hostelería que puede llevar aparejada la utilización de los anclajes.

1. Colores: Se deberán utilizar los tonos neutros (blancos, cremas, metalizados...). No pueden utilizarse colores llamativos y/o chillones. A estos efectos y en caso de que el interesado tenga dudas sobre la adecuación a la presente normativa de un determinado material o color, podrá dirigirse a los servicios técnicos municipales a fin de aclarar estos extremos con carácter previo a la solicitud de autorización.

2. Se prohíben expresamente las terrazas estándar de publicidad que incumplan las condiciones o materiales descritos anteriormente.

3. El mobiliario en general (mesas, sillas, sombrillas, separadores, etc.) se deberá mantener siempre en buen estado de conservación.

4. Sombrillas: La individuales para cada mesa no podrán ir ancladas al suelo. Para sombrillas que cubran más de una mesa, se requerirá licencia expresa.

CAPÍTULO IV

## HORARIOS

### Artículo 6

Queda prohibido turbar el reposo del vecindario con ruidos, gritos u otras molestias. En todo caso estará prohibida la instalación de megafonía exterior.

### Artículo 7

1. El horario de ocupación es el siguiente:

— Instalación: Desde las 9:00 sin que se entorpezcan las labores de limpieza.

— Retirada: De 1 de abril al 31 de octubre:

• De domingo a jueves: 24:00 horas.

• Viernes, sábados y vísperas de festivos: 1:30 horas.

— Resto del período de autorización:

• De domingo a jueves: 23:00 horas.

• Viernes, sábados y vísperas de festivos: 24:00 horas.

Una vez de que se acabe el horario de funcionamiento de las terrazas, se tendrán que retirar todos los elementos de la vía pública, y para ello, habrá un plazo de treinta (30) minutos.

Horario especial:

— Una hora más que el horario normal.

— El horario especial se aprueba para los siguientes días: Víspera de Reyes, martes de Carnaval, sábado de Carnaval, sábado de Arrain Azoka, víspera de San Juan de Doniene, víspera de Madalenas, día de Madalenas, día de San Roke, víspera de Andra Mari, día de Andra Mari, día de Arrantzale, víspera del Sukalki, día del Sukalki, víspera de Santa Eufemia, sábado de Bermistoria, día de Nochebuena eta día de Nochevieja.

2. En aquellos lugares como plazas cerradas o casos en los que se produjeran quejas por situarse el forjado inferior de las vivienda a una cota muy baja con respecto al forjado de la plaza, así como en aquellos casos en que se constate que, por cualquier otro motivo se producen molestias al vecindario se podrá limitar el horario.

3. En las áreas donde exista, el horario de la instalación no se iniciará en tanto no haya finalizado el horario de carga y descarga.

cve: BAO-BOB-2014a249

V. ATALBURUA

**BAIMENAREN BALDINTZAK**

**9. artikulua**

Terrazak eta beraien elementu osagarriak jartzeko, derrigorrezkoa izango da aurretiaz udalaren baimena eskuratzea.

1. Baimen hori lortzeko, interesatuak BERH@Z bulegoan emongo jakon eskaera normalizatua aurkeztu beharko dau. Aldameneko establezimenduen fatxada aurreak okupatu nahi izanez gero, establezimendu horien titularren baimena ere aurkeztu beharko da.

2. Lizentzia eskaerarekin batera, instalazio-proiektuaren memoria bat aurkeztu beharko da, baita, arinago emondako lizentziaren baldintzetan funtsezko aldaketa egin gura diranean ere.

3. Udalak, behin proiektu baloratu eta segurtasun neurriek horrela eskatzen dutela baderitzo, aurkeztutako proiektuaren aldaketak eskatu dezake.

4. Titulartasunaren aldaketa bat egin nahi danean, berritze kasuetan edo baimenaren edukian funtsezko aldaketarik suposatzen ez daben egoeretan, interesatuaren betebehar bakarra aldaketa formalki komunikatzea izango da. Horretarako eskabidea BERH@Z bulegoan aurkeztu beharko da.

5. Baimenaren edukian funtsezko aldaketak suposatzen dabezan gainontzeko kasuetan, interesatua, horretarako baimena eskatzera behartuta egongo da.

**10. artikulua**

1. Lizentziak, jabetza eskubidea salbu eta hirugarrenen kalte barik emondakoak bezala ulertu beharko dira. Onuradunak ezin izango dau lizentzia aipatu bere aktibitateen ondorioz izan ditzakeen erantzukizun zibila edo penala eskluditu edo murrizteko. Era berean, terraza instalatzeko lizentziak ez dau berorren titularra salbuesten bestelako baimenik lortu beharretik.

2. Lizentzia agirian, instalazioaren eta elementu osagarrien baldintzak finkatuko dira, baita okupatu beharreko azalera, baimenaren iraunaldia, ordutegia eta beharrezkotzat jotzen diren gainontzeko xehetasunak. Lizentzia agiria tabernan jendaurrean ikusgai egon beharko da.

3. Baimenak prekarioko izaera izango du beti eta udal agintéak, modu arrazoituan, baimendutako instalazioak bide publikotik eta partikularraren kontura erretiratzeko agindu dezake. Batez ere, trafiko edo urbanizazio egoerak edo interes orokorreko beste arrazoi batzuek horrela aholkatzen dabenean. Hori guztia inolako kalte-ordainerako eskubiderik gabe.

4. Baimenaren titularra, instalazioaren ondorioz bide publikoan gertatzen diren kalte guztiengatik erantzutera behartuta dago.

**11. artikulua**

1. Baimenen gehienezko iraunaldia urte betekoa izango da. Epe hori igarota gero, interesatua baimenaren berritzea eskatzera behartuta egongo da.

2. Baimenaren iraunaldia igarota, lizentziaren titularrak eta kasu bakoitzean dagokion ostalaritza-establezimenduarenak, instalazio guztia erretiratu beharko du, bide publikoa bere lehenagoko egoerara bueltatuz.

3. Jatorrizko baimenean funtsezko aldaketarik suposatzen ez daben hurrengo aldietarako barritze eskaerak, alboko establezimenduen onespen dokumentu berrituarekin batera aurkeztu beharko dira, onespen hori lortzeko baldintzak aldatu ez badira behintzat.

**12. artikulua**

1. Izaera orokorreko betebeharrak eta ordenantza honetatik ondorioztatzen diranetaz gain, instalazioaren titularra behartuta dago okupatzen dauan lurzorua, instalazioa bera eta honen elementu osagarriak beharrezko garbitasun eta segurtasun baldintzetan man-

CAPÍTULO V

**CONDICIONES DE AUTORIZACIÓN**

**Artículo 9**

La instalación de terrazas y de sus elementos auxiliares queda sujeta a la previa autorización municipal.

1. A estos efectos, el interesado deberá presentar la correspondiente solicitud normalizada que le será proporcionada por el BERH@Z, a la que se deberá acompañar la autorización de los titulares de los establecimientos adyacentes en el supuesto en que pretenda la instalación ocupando la fachada de establecimientos colindantes.

2. A la solicitud de licencia o cuando se trate de un cambio sustancial de la licencia (número de mesas, ubicación, etc.) deberá adjuntarse, una memoria del proyecto de instalación.

3. Cuando por razones de seguridad y ornato, y previo juicio municipal razonado se estime necesario, se exigirán cambios en dicho proyecto.

4. En los supuestos en los que se pretenda un cambio de titularidad, renovación y en general todas aquellas circunstancias que no conlleven alteraciones sustanciales en el contenido de la autorización, el interesado solo vendrá obligado a comunicar formalmente dicho cambio, mediante instancia a presentar en el BERH@Z.

5. En el resto de supuestos que conlleven un cambio sustancial del contenido de la autorización, el interesado vendrá obligado a solicitar autorización.

**Artículo 10**

1. Las licencias se entenderán siempre otorgadas, salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio del tercero, no pudiendo ser invocadas para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que hubiera incurrido el beneficiario en el ejercicio de sus actividades, ni eximen a su titular de la necesidad, en su caso, de obtener otras autorizaciones.

2. En el documento de la licencia se fijarán las condiciones de la instalación y elementos auxiliares, superficie a ocupar, período de vigencia de la autorización, horario y demás particularidades que se estimen necesarias. El documento de la licencia deberá estar expuesto en el establecimiento, en lugar visible al público.

3. La licencia tendrá siempre carácter de precario y la autoridad municipal podrá ordenar, de forma razonada, la retirada de la vía pública, y a costa del particular, de las instalaciones autorizadas, cuando circunstancias de tráfico, urbanización o cualquier otra de interés general así lo aconsejen, y ello sin derecho a indemnización alguna.

4. El titular de la licencia queda obligado a reparar cuantos daños se produzcan en la vía pública, como consecuencia de la instalación.

**Artículo 11**

1. Las autorizaciones tendrán un período de vigencia máximo de 1 año, de forma que el interesado vendrá obligado a solicita la renovación de la misma una vez transcurrido dicho plazo.

2. Transcurrido el período de vigencia, el titular de la licencia, y en su caso, el del establecimiento correspondiente, deberá retirar toda la instalación devolviendo la vía pública a su estado anterior.

3. Las solicitudes de renovación de licencia para ulteriores períodos que no supongan cambios sustanciales en la misma habrán de venir tan solo acompañadas de la renovación de la conformidad de los establecimientos adyacentes, salvo que hubieran variado las circunstancias que dieron origen a aquella.

**Artículo 12**

1. Sin perjuicio de las obligaciones de carácter general, y de las que se derivan de la presente Ordenanza, el titular de la instalación queda obligado a mantener tanto el suelo cuya ocupación se autoriza, como la propia instalación y sus elementos auxiliares, en per-

cve: BAO-BOB-2014a249

tentzera. Helburu horretarako beharrezko bitarteko guztiak erabili beharko dauzalarik, adibidez: paperontziak, hautsontziak eta abar.

2. Instalazioaren titularrak dagozkion tasa eta bestelako ordainarazpen guztiak ordainduko deutsoz Udalari, ordenantza fiskaletan ezartzen dan modu eta zenbatekoan.

VI. ATALBURUA

**ZEHAPEN-ARAUBIDEA**

**13. artikulua.—*Lizentzi gabeko instalazinoak***

1. Udal agintariek,berehala eta kautela-neurri bezala, bide publikoan lizentzia barik jarrita dagozan instalazinoak kendu ahal izango dabe. Erretiratutako altzariak Udalak horretarako aukeratzen dauan tokian utziko dira. Hau guztia, jagokozan zigorren ezarpenaren kalte barik.

2. Lizentziaren iraunaldia amaituta gero terrazak martxan jarraitzen badau, egoera hau lizentzi-gabeko egoera bezala kontsideratuko da, diziplina-araubide honen efektuetarako.

**14. artikulua.—*Arau-hausteak***

Ordenantza honen ondorioei jagokonez, arau hausteak arin eta larri bezala sailkatuko dira.

1. Arau-hauste arin bezala kontsideratuko dira:

a) Araututako ordutegitik kanpo terrazak jartzea.

b) Elementu osagarriak (mahaiak, aulkiak eta abar) okupatu beharreko lurzorutik kanpo jartzea.

c) Aulkiak, mahaiak eta elementu osagarriak baimendutako eremutik kanpo ezartzea.

d) Okupatutako espazio beharrezko segurtasun, ordena eta garbitasun egoeran ez mantentzea.

e) Ordenantza honetan zehazten den araudia ez betetzea.

2. Arau-hauste larriak izango dira:

a) Baimenik gabe terrazak eta beste elementu osagarri batuk jartzea.

b) Ordenantza honetan zehazten diren elementuak, baimendutako baldintza teknikoak bete gabe jartzea.

c) Espediente berreslea hasi aurreko urtean, ebazpen irmo bidez zigortu diren hiru arau-hauste arin egin izatea.

**15.artikulua.—*Zigorrak***

1. Ordenatza honen arau-hausteak hurrengo eskalaren araberako isunekin zigortuko dira:

a) Arau-hauste arinak 90 eurotik 300erorarteko isuna izago dabe edo/eta baimenaren baliogabetzea eta ondorioz instalazioa berehala kentzea, udalaren errekerimenduaren desobedientzia kasuetan.

b) Arau-hauste larriak, 300 eurotik 900 eurorarteko isuna.

2. Instalazioa geroago erabaki baten bidez legeztatzen bada eta udalaren errekerimenduei erresistentzia edo erreiteraziorik ematen ez bajakez, zigorra, zigor ekonomiko batetara mugatuko da.

**16.artikulua.—*Zigor espedientea***

Zigorra, jagokon espedientearen jardunbidea jarraitu ostean bakarrik ezarri ahal izango dira. Zigor-espedientea, beti ere, Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazio Publikoen ahalmen zigortzailearen araberako izan beharko da.

**17.artikulua.—*Betearazpen ordezkatzailea***

1. Instalazioaren arduradunak, bide publikoan jarritako elementuak kentzeko udal aginduari kasu egingo ez balio, Administrazioak elementu horrek kendu ditzake. Elementuok horretarako izendatutako tokian lagatuko dira eta jabeak bertan berreskuratu ahal izango dauz, beti ere, jagokozan gastuak ordaindu ostean. Hau guztia, azaroaren Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26ko 98. artikuluan zehazten danaren arabera.

fectas condiciones de limpieza, seguridad y ornato, disponiendo para ello de todos los medios necesarios como papeleras, ceniceros, etc.

2. El titular de la instalación abonará al Ayuntamiento las Tasas y demás exacciones que pudieran corresponderle, en la cuantía y forma establecida en las ordenanzas fiscales.

CAPÍTULO VI

**RÉGIMEN SANCIONADOR**

**Artículo 13.—*Instalaciones sin licencia***

1. La autoridad municipal podrá retirar, de forma cautelar e inmediata, las terrazas instaladas sin licencia en la vía pública, y proceder a su depósito en lugar designado a ello, sin perjuicio de la imposición de las sanciones oportunas.

2. La permanencia de terrazas, tras la finalización del período de vigencia de la licencia será asimilada, a los presentes efectos disciplinarios, a la situación de falta de autorización municipal.

**Artículo 14.—*De las infracciones***

A los Efectos de la presente Ordenanza, las infracciones se clasifican en leves y graves.

1. Tendrán la consideración de infracciones leves:

a) Colocación de terrazas fuera del horario establecido.

b) Colocación de elementos (mesas, sillas u otros elementos auxiliares) excediendo suelo ocupado.

c) La ubicación de mesas, sillas o elementos auxiliares fuera de la ubicación autorizada.

d) No mantener el espacio de ocupación en las debidas condiciones de ornato, seguridad y limpieza.

e) El incumplimiento de la normativa establecida en la presente ordenanza.

2. Tendrán la consideración de infracciones graves:

a) La instalación de terrazas y otros elementos auxiliaren sin licencia.

b) La colocación de elementos sujetos a la presente ordenanza sin respetar las condiciones técnica autorizada.

c) La comisión de tres infracciones leves, con imposición de sanción por resolución firme, durante el año anterior al inicio del expediente sancionador.

**Artículo 15.—*De la sanciones***

1. Las infracciones de la presente Ordenanza serán sancionada con multa de conformidad con la siguiente escala:

a) Infracciones leves con multa de 90 a 300 euro y/o revocación de la licencia y consiguiente retirada inmediata de la instalación, en casos de desobediencia al requerimiento municipal.

b) Infracciones graves con multa de 300 a 900 euro.

2. Si la instalación fuera legalizada posteriormente, y no se hubiese dado reiteración, o resistencia a los requerimientos municipales, la sanción se podrá limitar a la sanción económica.

**Artículo 16.—*Expediente sancionador***

Las sanciones que procedan solo podrán imponerse previa la instrucción del correspondiente expediente, que será tramitada de conformidad con lo dispuesto en la Ley que regula la potestad sancionadora de la Administraciones Públicas de la CAV.

**Artículo 17.—*Ejecución subsidiaria***

1. Cuando el responsable de la instalación hiciera caso omiso de la orden municipal de retirada de elementos instalados en la vía pública, en los supuestos previstos en la presente Ordenanza, la Administración podrá proceder subsidiariamente al levantamiento de los mismos, quedando depositados en el lugar designado para ello, de donde podrán ser retirados por la propiedad, previo abono de los gastos correspondientes, todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículo 98 de la Ley 30/92 de 26 de noviembre, Ley de Procedimiento Administrativo Común.

cve: BAO-BOB-2014a249

2. Artikulu honetan zehaztutakoa betez, erretiratu diran elementuak ezin izango dira sei (6) hilabete baino haragoko epean biltegiratuta egon. Epe hori igaro ostean interesatuak erretiratu ez badauz, udalak suntsitu, saldu edo laga egin ahal izango dauz.

XEDAPEN IRAGANKORRA

2008ko abenduaren 31rarteko epe bat xedatzen da arinago emondako terrazak jartzeko lizentziak gutxika joateko moldatzen ordenantza honen baldintza teknikoetara. Egun horretatik aurrera, terrazak osatzen dabezan elementu guztiak Ordenantza honetan xedatzen diran baldintza tekniko guztiak bete beharko dabez.

AZKEN XEDAPENAK

1. Ordenantza hau, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost lanegunetara, egongo da indarrean.

2. Lizentziak emoteko udal agintaria espresuki baimenduta dago Ordenantza hau interpretatu, argitu eta garatzeko, administrazio prozedura erkidegoak ezartzen dauzan irizpideei jarraituz.

Bermeon, 2014ko abenduaren 19an.—Alkatea, Idurre Bideguren Gabantxo

(II-8223)

2. Los elementos que hayan sido retirados conforme a lo dispuesto en el presente artículo, no podrán permanece almacenados durante un plazo superior a 6 meses, transcurrido el cual sin que por parte del interesado se hayan retirado, el ayuntamiento podrá proceder a su destrucción, venta o cesión.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

A fin de permitir una paulatina adaptación de las autorizaciones concedidas de terrazas a las condiciones técnicas establecidas en la presente ordenanza, se establece un período de adaptación hasta el 31 de diciembre de 2008. A partir de esta fecha, todos los elementos componentes de las terrazas deberán cumplir con las condiciones técnicas establecidas en la presente Ordenanza.

DISPOSICIONES FINALES

1. La presente Ordenanza surtirá efectos una vez transcurridos quince días hábiles desde la publicación del texto integro de la misma en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

2. Se autoriza expresamente a la autoridad municipal para el otorgamiento de licencias, a interpretar, aclarar y desarrollar la presente Ordenanza, conforme a los principios regidos en la legislación sobre procedimiento administrativo común.

En Bermeo, a 19 de diciembre de 2014.—La Alcaldesa, Idurre Bideguren Gabantxo

(II-8223)

•

## Ermuko Udala

**Betiondo Sektorearen birzatitze-proiektuaren behin betiko likidazio-kontua behin betikotasunez onartzea.**

Ermua Hiriko Alkate-udalburuak, 2014ko abenduaren 9an emaniko ebazpenaren bidez, honako erabakia hartu du:

«2014ko urriaren 16an Alkatetzak emaniko 2652/2014 zenbakiko ebazpenez hasierako izaeraz onetsi zen LUS-02 "Betiondo" Bizitegi Sektorearen birzatitze-proiektuaren behin betiko likidazio-kontuaren dokumentua.

Hasierako izaeraz onetsitako dokumentua jendaurrean egon da eta sektoreko ondasun eta eskubideen titularrei banan-banan jakinarazi zaie, hala egitea aginduta baitago birzatitze-proiektuak onesteko. Jendaurreko informaziorako iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 202 zenbakian, 2014ko urriaren 22koan argitaratu zen, 2014ko urriaren 23ko "El Correo" egunkarian eta Ermuko Udaleko iragarki-taula digitalean.

Jendaurreko informazio-epean alegazioak aurkeztu dituzte Beatriz Yarza Iglesias andreak eta beste batzuek (8.822 erref.), Promociones Ongaray 2001 S.L.k (8.952 erref.) Promociones Behera-Mendi 2001, S.L.k (8.951 erref.) eta Alberto Lista Ostiz eta Mª Gloria Akasuso Suárezek (8.355 erref).

Aipatutako alegazioen gainean txostenak egin dituzte, udal arkitektoak batetik 2014ko abenduaren 2an, eta lege-aholkulariak bestetik 2014ko abenduaren 4an (horien kopiak ebazpen honi erantsiko zaizkio), eta txostenok dira honako ebazpen honen "in aliunde" zergatia.

Horren guztiaren ondoren eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21 artikuluan eta legez aplikatu beharreko beste batzuetan ezarritakoari jarraituz, alkatetza honek, eman zaizkion ahalmenez baliatuz

ERABAKI DU:

*Lehenengo:* Beatriz Yarza Iglesias andreak eta beste batzuek aurkeztutako alegazioak partzialki baiestea, hala proposatzen baita honakoari erantsita dauden txosten teknikoan eta juridikoan, eta zehazki ondokoa:

## Ayuntamiento de Ermua

**Aprobación definitiva de la cuenta de liquidación definitiva del proyecto de reparcelación del sector Betiondo.**

El Sr. Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Ermua, según resolución de fecha 9 de diciembre de 2014, ha adoptado el siguiente acuerdo:

«Dada cuenta que por resolución de Alcaldía número 2652/2014, de 16 de octubre, se aprobó inicialmente el documento de la Cuenta de liquidación definitiva del Proyecto de Reparcelación del Sector de Suelo Urbanizable Residencial SSU-02 "Betiondo" de Ermua.

Dada cuenta que el documento aprobado inicialmente ha sido sometido a exposición pública con notificación individualizada a los titulares de bienes y derechos afectados, de conformidad con lo dispuesto para la aprobación de Proyectos de Reparcelación. El anuncio de información pública ha sido publicado en el "Boletín Oficial de Bizkaia" número 202, de fecha 22 de octubre de 2014, en el periódico "El Correo" de fecha 23 de octubre de 2014, y en el tablón de anuncios digital del Ayuntamiento de Ermua.

Resultando que en el trámite de exposición pública se han formulado alegaciones por doña Beatriz Yarza Iglesias y otros (Ref. 8.822), Promociones Ongaray 2001, S.L. (Ref. 8.952), Promociones Behera-Mendi 2001, S.L. (Ref. 8.951), y don Alberto Lista Ostiz y doña Mª Gloria Akasuso Suárez (Ref. 8.355).

Vistos los informes a las referidas alegaciones, emitidos por el arquitecto municipal en fecha 2 de diciembre de 2014, y asesor jurídico de fecha 4 de diciembre de 2014, copia de los cuales se ha de acompañar a esta resolución constituyendo la motivación "in aliunde" de la misma.

De conformidad, con lo dispuesto en el artículo 21 de la ley 7/985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, y demás de legal y pertinente aplicación, esta Alcaldía en uso de las facultades que tiene conferidas

ACUERDA:

*Primero:* Estimar parcialmente las alegaciones formuladas por Doña Beatriz Yarza Iglesias y otros, de conformidad con lo propuesto por los informes jurídico y técnico que junto a la presente se acompañan, en el siguiente sentido:

cve: BAO-BOB-2014a249